



## Lotarako ipuinak

### ZERGATIK ETA ZER EGITEKO?

Lotarako ipuinak» egitasmoak soinu-fikzio laburrak dituoinarri bezala, «irradi-pilula» edo podcast formatuan. Ipuin tradizional unibertsalak ardatz hartuta, gaur egungo narrazio modu arin, alai eta “ganberroa” izango du, oinarrizko giza-balioak landuz (adiskidetasuna, ahalegina, zuzentasuna, berdintasuna...) baina esteriotipo eta asmo moralizatzaileetatik urrunduz.

Eredu bezala, besteak beste, Gimlet Mediaren “The Two Princes” soinu fikzioa, Cartoon Network-en “Adventure time” ikusentzunezko fikzioa, DreamWorks-en “Shrek” filma edota Cressida Cowell idazlearen “Wizards of once” liburu sorta hartu da.

Podcast fenomenoak hazkunde esponentziala izan du Europan eta Latinoamerikan, batez ere gazteen artean, baina baita 40-60 urtekoen artean ere. Lehen mailako komunikazio- eta kultura-tresna da, garapen betean dagoena, eta edozein toki eta unetan disfrutatu daitekeena. On demand edukien gorakadak, streaming plataformen ugartzeak eta ikus-entzunezko serieek izan duten arrakasta errepika dezaketen soinu-fikzioko proiektuak ekoizteko momentu egokia sortu dute.

Helburua, edonola ere, entretenimendu hutsaz haratago, gazteen artean gure hizkuntzen ezagutza eta zabalkundean indar egitea litzateke, eta baita eskualdeko herrialde ezberdinen kulturaren berri ematea ere.

Horretarako, hizkuntzen trataeraz gain, soinu fikzioko pertsonaia bakoitzari Euroeskualdeko eremuetako jatorri ezberdin bat emateko asmoa da (bata nafarra, bestea Akitaniakoa...), kulturen arteko zubi eta nahasketa hori beti presente egon dadin. Alegia, ez dela soilik 4 hizkuntzetan ekoiztako soinu-fikzio bat izango, baizik eta hizkuntza edozein dela ere, beti inter-konektatua egongo den istorio bat.

### NORENTZAT?

5-10 urte bitarteko haurrentzat.

### PROIEKTUAREN SLUSTATZAILEA?

GURE IRRATIA eta PODCASTFILIA S.L.





# ideiak 2024.



## NOIZ?

2024ko uztailetik urrira, egitasmoaren planteamendu eta gidoia burutzea aurreikusi da. Lehen ideia bezala, «Hiru sagar ustel»/ «Tres manzanas podridas» «Trois pommes pourris» aurkeztu da, baina «Otsoaren ipuinak» ere izan daiteke.

Ondoren, 2024ko azarotik 2025eko urtarrilera, gidoien itzulpena (beste hiru hizkuntzetara eta euskararen orrazketa), aurre-ekoizpena, aktoreen casting-a eta sail osoaren diseinu grafikoa eta artea burutuko dira. 2025eko otsailean, grabazioak burutuko dira; haien gehiengoa Lasarteko ULU Studion izango dira, baina zenbait Ustaritzeko Gure Irratiaren egoitzetan ere bai. 2025eko martxotik maiatzera, grabatutako ahotsen soinu edizioa, muntaketa eta posprodukzio lanak etorriko dira, ahotsez gain musika eta foleyak sartuz. 2025eko ekainean, urtean zehar burututakoaz gain eta euskal irratietan saila “aireratu” bezperetan, komunikazio ekitaldi nagusia burutuko da, presentzialki eta on-line izango den aurkezpen ekitaldi baten bitartez.

Azkenik, 2025eko ekaina eta abendua bitartean zabalkunde orokorra egingo da audio-plataformetan, entzuleen feedback eta atxikimendurako tresnak bilatuz.

## AURREKONTUA?

Proiektuaren kostu osoa: 90.450 €

Eskatutako diru-laguntza: 20.000 €

